

AGERRALDIA GIPUZKOAKO BATZAR OROKORRETAN

2022-04-01

ZIOA eta/edo AURREKARIAK

Giza jarduera gehienak naturak ematen dizkigun baliabide eta ondasunetan oinarritzen dira. Bizi dugun zibilizazioaren krisiaren arrazoietakoa bat da natura-inguruneen baliabideak erazte eta gehiegi erabiltzea.

Gipuzkoak zaindu eta babestu egin behar den natura-ingurunea du, hura ahalik eta hobekien kontserbatzeko, etorkizuneko belaunaldiari begira. Natura-ingurune orekaturik gabe, ezin da gizarte jasangarri bat garatu.

Gipuzkoako gizarte zibil aberats eta aktibotik sortu dira gure natura-ingurunearen egoera zuzenean ezagutzen duten erakunde naturalista eta ekologista asko. Erakunde horiek, era berean, Naturkon Ingurumena Zaintzeko Erakundearen inguruan antolatu dira.

Gipuzkoako natura-ingurunearen benetako egoera ezagutzeko, haren arazo nagusiak, erronkak eta ahuleziak ezagutzeko eta konponbideak proposatzeko, uste dugu beharrezkoa dela erakunde horretako ordezkariak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneen Batzordean agertzea.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu Podemos/Ahal Dugu alderdi politikoari agerraldi honetan parte hartzeko bide egiteagatik eta agerraldiaren aurrekarietan azaldu bezala, Gipuzkoako natura ingurunearen benetako egoera ezagutarazi, arazo nagusiak bistarazi, erronkak eta ahuleziak identifikatu eta konponbideak proposatzeko aukera eskaintzeagatik.

Krisi ekologiko globalaren garaia bizi dugu, Antropozenoa izendatu duten garai geologiko honetan, gizakiak ingurunean duen eragina da ezaugarri nabarmen eta kezagarrienetakoa. Urkullu berak solemnitaterik handiz izendatu zuen larrialdi klimatikoa bere gobernuakideen aurrean duela bizpahiru urte. Ez Jaurlaritzan eta ezta Aldundietan ere ez digute biodibertsitatearen galeraz hitz egiten; baina, Covid19ak erakutsi digu klima aldaketa bezain arriskutsua edo arriskutsuagoa dela gizakiontzat biodibertsitatearen galera.

Gaur gaurkoz, ekonomia globalizatua bizi dugun garaian, zaila da gizarte baten ingurumen beharrak zehaztea. Baina, Gipuzkoako Aldundiak behin baino gehiagotan neurtu duen Azterna ekologikoaren adierazleari kasu eginez gero, egun dugun bizi mailari eusteko Gipuzkoarrok gure lurraldearen ia hirukoitza beharko genukeela esan dezakegu; beti ere, gure lurzorua emankorra balitz.

Errealitate honi erantzuteko, Europako lege-markoaren barruan Jaurlaritzak hartutako konpromisoak bere egin ditu Gipuzkoako Aldundiak Garapen Jasangarrirako 2030 helburuei erantzuteko. Web-orrian zintzilikatuta daukan “Gipuzkoan ingurumen-helburu eta –helmugan arloan egin den aurrerabidea. Hirugarren txostena 2020” dokumentuan jasotzen da hartutako konpromisoen bilakaera. Besteak beste, hauek dira biodibertsitatearekin erlazionatutako adierazleak:

14. Helburua: Itsaspeko bizitza:

Maila globalean, ozeanoak, itsasoak era itsasoko baliabideak kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapena jasangarria izan dadin. Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen 10 helmugetatik 4 hartzen ditu IOHDK erreferentziazko helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta. Helmuga horiek lurreko jardueren eraginez itsasoan sortutako kutsadura prebenitzairekin eta kudeatzairekin, eta kostaldeko eta itsasoko zonak kudeatzairekin eta zaintzairekin lotutako gaiak heltzen diete.

- 14.2. Kostaldeko eta estuarioetako Babestutako Natura-espazioak (Iturria GFA)

2015etik 2020ra ez da aldaketarik egon.

15. Helburua: Lehorreko ekosistemetak bizitza

Maila globalean, lehorreko bizitza babestea, berroneratzea eta modu jasangarrian erabil dadin sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzaaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen 12 helmugetatik 6 hartzen ditu IOHDK erreferentziazko helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta.

15	Babestutako espazio naturalak Babestutako natura-espazioak okupatutako hektareak	15.1	TESTU.	EJ	Ha	2020
	Baso erdi-naturalak Baso erdi-naturalek okupatutako hektareak (baso-inbentariotik)	15.1	TESTU.	GFA	Ha	2020
	Zuhaizdun baso-azalera Baso-azalera (hektareatan), basoak, landaketa-basoak eta galeria-basoak bame (baso-inbentariotik)	15.1	TESTU.	GFA	Ha	2020
	Baso-azalera ziurtatua PEFC programaren arabera ziurtatutako baso-azalera	15.2	TESTU.	PEFC Euskadi	Ha	2020
	Zona degradatuen berroneratzea Berroneratutako azalera degradatua, metro koadrotan	15.3	JARD.	GFA	m ²	2020
	Babestutako mendi-ekosistemak Babestutako Natura-espazio baten barruan egonik, 1.000 metrotik gorako altueran dagoen azalera portzentajea	15.4	TESTU.	EJ	%	2020
	Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden fauna-espezieak "Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako fauna-espezieen kopurua	15.5	TESTU.	EJ	Kop.	2020
	Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden flora-espezieak "Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako flora-espezieen kopurua	15.5	TESTU.	EJ	Kop.	2020
	Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa	15.5	JARD.	GFA	%	2020
	Espezie inbaditzaileen gaineko kontrola Gipuzkoan Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko egin duen inbertsioa, eurotan (€)	15.8	JARD.	GFA	€	2020

Adierazle hauetatik gehienak ez dira aldatu. Aldundiaren balorazioaren arabera, onera egin duena, landaketa-basoen azalera da, hori ere 2016koa baino txikiagoa izanda. Noski, hau ez dugu guk hobera egin duen adierazletzat hartzen. Lehendik ere gaizki zegoena, arriskuan egonik kudeaketa edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa da: % 3.2 besterik ez. Datu hauek, gainera, Jaurlaritzatik eskuratutakoak dira, GFAk ez du eta hauen jarraipenik egiten, antza.

Testuinguruari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Babestutako espazio naturalak						
Babestutako natura-espazioek okupatutako hektareak	44.776	44.776	44.776	44.776	44.776	44.776
Baso erdi-naturalak						
Baso erdi-naturalek okupatutako hektareak	-	47.981	-	47.721	48.299	47.928
Zuhaizdun baso-azalera						
Baso-azalera (hektareatan), basoak, landaketa-basoak eta galeria-basoak barne	-	123.790	-	117.928	121.579	121.676
Baso-azalera ziurtatua						
PEFC programaren arabera ziurtatutako baso-azalera	22.213	22.634	22.935	23.121	23.727	24.542
Babestutako mendi-ekosistemak						
Babestutako Natura-espazio baten barruan egonik, 1.000 metrotik gorako altueran dagoen azalera portzentajea	%98	%98	%98	%98	%98	%98
Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden fauna-espezieak						
"Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako fauna-espezieen kopurua.	35	35	35	35	35	35
Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden flora-espezieak						
"Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako flora-espezieen kopurua.	56	56	56	56	56	56
Jardunari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Zona degradatuen berroneratzea						
Berroneratutako azalera degradatua, metro koadrotan	0	1.269	10.000	--	6.000	44.200
Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa						
Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa	%3,2	%3,2	%3,2	%3,2	%3,2	%3,2
Espezie inbaditzaileen gaineko kontrola Gipuzkoan						
Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko egin duen inbertsioa, eurotan (€)	46.600	53.600	63.600	69.078	69.078	59.000

Adierazle hauen joerak erakusten digutena da, GJH2030 egitasmoa hasi zenetik biodibertsitateari buruzko adierazleen neurketak izandako bilakaera. Baina, adierazle horien abiapuntuko egoera ezagutu gabe, bilakaeraren interpretazioa okerra izan liteke eta ondoren atalez-atal erakutsiko ditugun datuek erakutsi bezala, bilakaera horrek erakusten diguna da lehendik Gipuzkoako Foru Aldundiak natur kontserbaziorako erakusten zuen arduragabekeria mantendu edo emendatu baino ez dela egin.

NATUR KONTSERBAZIOAREN ZAINZA GFAn

Sarreran aipatutako txostenak eta argibideak Ingurumena Zuzendaritzaren eskumenekoak diren ekimenen baitakoak badira ere, natur kontserbazioaren eta biodibertsitatearen zaintzarako ardura **Mendiak eta natura ingurune**ko zuzendaritzari dagokio. Zuzendaritza honetatik kudeatzen dira edo kudeatu beharko lirateke, babestutako inguruneak, basabizitza eta mendi lurretako zuhaiztiak. Zuzendaritza honen kudeaketaren ondorioak dira ondoren azaldu nahi ditugunak.

Aldundiaren web-orrian irakurri daitekeenez, zuzendaritza honen helburu eta apustu estrategikoa da: **Mendi publiko nahiz pribatuak iraunkortasun eta gehieneko erabilera printzipioen arabera aprobetxatu eta erabili daitezten ekintzak sustatzea**, mendien arazoizko erabilera bateragarri eginez natura ingurunea behar bezala zaintzearekin, era horretan mantendu edo areagotu ahal izateko mendiek duten ahalmena, gaur egun eta etorkizunean Gipuzkoako funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

Gure ustetan, Gipuzkoako ingurune naturalaren gehieneko erabilera printzipioen arabera aprobetxamendua egitea sustatzen da, baina erabilera hori ez da bateragarria lurraldearen eta biodibertsitatearen zaintzarekin eta are gutxiago, inguru naturalaren funtzio ekologikoekin.

BABESTUTAKO EREMUEN KUDEAKETA

- Gipuzkoak 4 natura parke ditu: Aralar, Pagoeta, Aiako Harria eta Aizkorri. Babestutako eremu natural hauetako bakar batek ere ez dauka PRUG edo Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) indarrean. Aizkorrikoak ez du ezta patronaturik ere.

Gainerakoetan nolabaiteko maiztasunarekin biltzen dira Patronatuak eta gonbidatuak izaten gara natur kontserbazioa helburu dugun gizarte eragileak. Hainbat aldiz salatu dugunez, formalismo aldetik lotsagarriak izateaz gain, bilera hauetan parke hauen erabilera publikoari buruzko datuak baino ez ditugu jasotzen. Gehienez ere, parke hauen mantenurako egiturazko gastuen argibideekin.

Hainbat aldiz eskatu dugu parke hauen aurrekontuaren laurdena natur kontserbaziora bideratzea, besteak beste basabizitzaren ikerketara, baina entzungor egin zaigu sistematikoki.

Adibideetan luzatuko ginateke, eta gero sakon dezakegu, baina, zuzendaritza honen lehentasunei jarraiki, parke hauetan lehentasuna erabilera publikoak eta abeltzaintzak daukate. Egurgintzak, zorionez eta hala beharrez, utzi dio lehentasunezko jarduera izateari. Hori bai, natur kontserbaziora ez da xentimorik bideratzen.

- Gipuzkoan 3 Biotopo Babestu ere baditugu: Iñurritza, Leitzarain eta Deba-Zumaia. Azken hau Natura 2000 saretik kanpo eta beraz, inolako kudeaketa-tresnarik gabe. Eremu hauetan guztietan muturreraino eraman da erabilera publikoa eta neurtzen ez bada ere, bistakoa da eremuaren degradazio fisikoa ez ezik, biodibertsitatearen galera edo endekapena, espezie inbaditzaileak medio.
- Europar Batasuneko legedira etorrita, Natura 2000 sarea osatzen duten 18 eremu ere baditu Gipuzkoak. Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatuta dauden hauek guztiek ez dute, legez, parte-hartzeko mahaiak osatzeko beharrik. Baina, izango balute ere alferrikakoak lirateke, Aldundiak ez baititu eremu horiek kudeatzen natur kontserbazioaren alde. Eremu horietan guztietan, parkeetan bezala, erabilera publikoa eta nekazaritza-ustiaketa

lehenesten dira, jarduerak hauek ingurunean eta biodibertsitatean eragiten dituzten inpaktuak sistematikoki neurtu gabe.

Lantzean lantzean bertako basoaren edo espezie jakin baten aldeko ekintzak egiten dira, modu puntualean eta Udalen baten ekimenez. Anekdotak hutsa.

- Europar Batasuneko legediarekin jarraituz,

Honen guztiaren ondorioak argiak dira: Gipuzkoako babestutako eremuetan ez da natur kontserbazioa lehenesten, ez da biodibertsitatea ikertzen eta ezta zaintzen ere, aipatu bezala, arriskuan dauden espezieak ere ez direlako kudeatzen.

Hori erakusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020an eta 2021ean EH Bilduk Batzar honetan egindako galderei emandako erantzunek. Duela bi urte **Interes europarreko habitatengatik galdetua** eta 2021ean, **Babestutako Espazioen eta Kudeaketa Planen Inguruan, Babestutako espezieen inguruan** edota **Egoera txarrean dauden habitaten inguruan** galdetuta, ezin daiteke erantzun lotsagarriagorik eman. Halako informazio eta ardura faltaren inguruan, dagokionari, administrazio horretan ofizioz esku-hartzea eskatzea zilegi delakoan gaude. Ez dugu ulertzen Batzar orokor honek nola ez duen halakorik irmoago salatzen.

Egia da, berriki, berriro ere Bizkaian eta Araban indarrean dauden *“EAEn Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana”* eta *“Euskal Autonomia Erkidegoan lurpeko babeslekuetan eta eraikinetan bizi diren kiropteroak kudeatzeko baterako plana”* Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jasotzea eskatu behar izan duzue indarrean jarri ahal izateko. Ez du ematen Gipuzkoako Aldundiari bere betebeharrak betetzeko agintzeko adinako indarrik duzuenik. Zer egin dezakegu, bada, gizarte eragileok?

BASOGINTZA

Azken urteotan, Gipuzkoako gizartea asaldatu duen jarduera da hau. Pinudien krisiak gorritutako paisaiak, mendira begira jarri ditu Gipuzkoarrak. Naturkon elkarteak sorreratik salatutako kudeaketa txarrearen ondorioak, begi-bistan dauzkagu nahita ere, ezkutatu ezinik.

Urtetako ia espezie bakarrean (*Pinus radiata*) oinarritutako monolaborantza intentsiboak ataka larrian jarri ditu lur-jabe txikiak, inork gutxik kuestionatzen zuen basogintza-politikarekiko haserre. Izan ere, ezin baita ahaztu urtez-urte onartzen diren Foru Aginduek arautzen dituztela basoetako diru-laguntzak eta diru-laguntza hauek izan direla nagusiki, aipatutako basogintza-eredua lehenestearren arrazoia.

Basoen egoera ekologikoak baldintzatzen du eta baldintzatuko du Gipuzkoako biodibertsitatea. Zoritxarrez eta zuhaitzez estalitako azalera lurraldearen % 61 bada ere, Gipuzkoan ez dugu basorik. Lurraldean oso dispersatuta dauden baso-orbain txikiak ditugu, elkarrengandik bereizita eta konektibitate ekologikorako aukera txikiarekin. Errealitate gordin hau sarreran aipatutako txostenean ez ezik, 2020an Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *“El estado de la naturaleza en Euskadi. Informe Conforme a la Directiva de Aves y de Hábitats de la UE y sobre la*

geodiversidad.2013-2018” txostenean jasotzen da. EAEn dauden baso natural guztien egoera ekologikoa txarra edo desegokia dela azpimarratzen da bertan. Administrazio berak argitaratutako “2016ko Euskadiko natura-ondarearen diagnostikoan” ere errealitate bera azpimarratzen zaigu. Gipuzkoako Aldundia ere honen jakitun da, 2019ko abendukoa den “Gipuzkoako azpiegitura berdeen sarea planifikatzeko diagnostikoa” txostenean jasotzen denez. Babestuta dauden, edota babestuta egon gabe ere, balio ekologiko handiena duten eremuak elkarrekin konektatzea du helburu planak. Ez da berria. 2005ean Eusko Jaurlaritzak EAEko korridore Ekologikoen Sarea egiteko plana onartu zuen. Gaur arte.

Pinudien krisiak monolaborantzan oinarritutako egurgintzaren eredu intentsiboa alboratu eta lurzoruekin eta oro har, biodibertsitatearekin errespetutsuagoan den ustiapen ereduaren aldeko baso-politika bideratzea eragin beharko luke. Aukera bikaina daukagu mendeetako joera aldatu eta guztion osasunaren mesederako litzatekeen natur kontserbazioaren bideari ekiditeko. Basoek eskaintzen dizkiguten eta eskain ditzaketen zerbitzu ekosistemikoak balioan jarriz, haien aldeko politika diseinatzea da gaurko gizarte moderno eta aurreratuak merezi eta eskatzen duena.

Horren adibide dira krisi honek eraginda, hainbat herritan sortu diren Baso Bizien Aldeko elkarteak. Ehunka herritar elkartu dira administrazioei basoen berreskurapenaren alde egiteko eskatzeko. Udalez udal, elkarte hauek eukalipto landaketak debekatzeko mozioak sartzeaz gain, jabe pribatuekin harremanetan jartzen ari dira euren lurrak zaintzan eman ditzaten berezko basoei bide egiteko. Helburu horrekin administrazioei lurrak erosteko eskaerak luzatzeaz gain, Lurgaia fundazioarekin auzo-lanean, hainbat herrietan landaketak ere egin dira neguan zehar.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren baso-politika okerrak herritarrak asaldatu ditu. Auzo-lanean, gure mendiak berreskuratzeko konpromisoa erakutsi dugu. Baina, hain da handia aurrean daukagun erronka, ezinbestekoa dela baliabide publikoak eskuratzea. Dударik gabe, urtez-urte emendatuko diren zuhaitz-landaketak egiteko landareak behar dira eta bertako espezieen genetika errespetatu nahi badugu, propio bertako zuhaitzetatik bildutako hazientzat mintegiak behar dira. Aldundiak Urnietan duen Arizmendiko mintegia horretarako aproposa litzateke. Mintegi publikoak behar ditugu bertako landareak hazteko eta Aldundiari dagokio behar hau asetzea.

BIODIBERTSITATEAREN ZAINTZA

Azkenik, ezin bukatu agerraldi hau arlo hau aipatu gabe. Gipuzkoan ez daukagu behar beste baliabide biodibertsitatearen zaintza bermatzeko. Batetik, basozain gutxi daudelako horretarako eta, bestetik, haiek egindako lanari ez zaiolako behar besteko garrantzirik ematen. Horren adibide da Eguzkik aurreko urtean Aldundiaren kontra jarritako salaketa, babestutako bi hegaztien kontrako tiroketaren berri ez emategatik Fiskaltzari.

Natur talde eta talde ekologistek hainbat alditan eskatu dituzte Natura parkeetako patronatuetan eta bestelako foroetan basabizitzaren kontrako lege-hausteei buruzko salaketen

datuak. Gertaera horien konfidentzialtasuna izan da beti, informaziorik ez emateko argudio. Horrek baina, gure taldeen berriazko funtzioa den gizarte eragiletza zailtzen du. Gaur gaurkoz, basabizitzaren kontrako tiroketak eta pozoitzeak gertatzen dira, baita suteak ere ingurune naturaletan. Gertaera negargarri horien kontrako sentsibilitate lana egitea dagokigu natur talde eta talde eragileoi eta horretarako ezinbestekoa dugu informazioa.

Ehiza eta arrantzaren kudeaketa ere ekarri nahi ditugu batzar honetara. Basurdearen eta azeriaren kontrako uxaldi arautuei buruzko datuak eskatuta, urtero ehiztariek emandako datuak baino ez ditugu jasotzen. Baimendutako ehizatutako orkatzen datuak ere bide beretik datoz. Ehizaren kudeaketa-eredu honen oinarri zientifikoak ez ditu erakusten Aldundiak, nahiz eta urtez urte baserritarrek agerian uzten dutenez, egungo ehiza-eredua ez da baliagarria basurdeak eragindako kalteak gutxitzeko. Erreketako arrantzaren kudeaketaren inguruan ere urtez-urte egin ditugu hainbat eskaera. Alfer alferrik.

Bukatzeko, ezin ahaztu itxi berri den Igeldoko faunaren berreskurapenerako zentroa. Zaila da hainbeste urtetan zentro horretan egindako lanari Aldundiak eman dion baino esker gutxiago ematea (publikoki bederen). Zentro horren ordezkoa Aldundiak Urnietan prestatuta duenaren ustea zabaldua dago. Ez daukagu berririk.

Hau guztia esanda, argi dago Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurune naturalaren kontserbazioarekiko interes gutxi erakusten badu, biodibertsitatearen zaintzarako are interes gutxiago duela. Abandonatuta dauka arlo hau, guztiz.

Ikusi besterik ez dago zeintzuk diren Departamentuak aurtengo ekitaldirako (2020 - 2023 legealdirako plangintzaren testuinguruan) Garapen Jasangarrirako 2030 helburuen artean espreski aipatzen dituen biak eta bere buruari jartzen dizkion 7 erronkak. Ez daude noski guk lehen azaldutakoak (14. eta 15. biodibertsitateari lotuak) eta erronken artean aipamen txikienik ere ez dute merezi, sobrare.

Honen guztiaren aurrean, zer eskatzen du Naturkonek:

BABESTUTAKO EREMUAK

- Natura parkeen EKZPak berritzea eta Patronatuetako bileretan parte-hartzea sustatzea, bermatzea eta aintzat hartzea..
- Babestutako Biotopoetako natura ondarearen diagnostikoak egin eta horiek kontserbatu edo berreskuratzeko planak egitea.
- Interes europarreko habitaten kontserbazio egoera hobetzeko edota berreskuratzeko planak praktikan jartzea.
- Mendiko eremuetan habitaten kontserbazioak lehentasuna izatea eta ez, orain arte bezala, abeltzaintza intentsiboagoa egiteak.

BASOGINTZA

- Baso-politika aldatzea. Diru-laguntzak lehentasunez bertako basoaren berreskurapenera bideratzea.
- Basogintza-jarduerak lurzoruaren eraginen baitan baimentzea; alegia, higadura-arrisku handiko eremuetan higadura areagotu dezaketen jarduerak debekatzea.
- “Euskadiko Baso Plangintzan 1994-2030” onartzen diren Mendi Babesleen deklarazioa mantxan jartzea, Gipuzkoarako kalkulatzen diren 56.181 ha-tara iritsi arte.
- Pista berriak egiteko diru-laguntzak debekatzea.
- %30eko malda baino handiagoko eremuetan monolaborantza intentsioa debekatzea.
- Basoen funtzionalitate ekologikoa bermatzeko korridore ekologikoak edo korridore berdeak sortzea.
- Arizmendiko mintegia martxan jartzea bertoko landareak ekoizteko ikusten ari garen demandari aurre hartzeko.

BASABIZITZA

- Basabizitzaren kontrako salaketak publiko egin eta herritarrek horrelakoak saihesteko sentsibilizazio-lana sustatzea.
- Basabizitzaren berreskurapenerako zentroa egokitzea eta martxan jartzea.
- Arriskuan dauden hegazti nekrofagoen eta kiropteroen baterako planak GAOn argitaratzea, indarrean jartzeko.
- Arriskuan dauden gainerako fauna eta flora espezieentzat kudeaketa planak egitea.

PARTE-HARTZEA

- Natur kontserbazioaren alde lanean ari diren natur talde eta talde ekologisten parte-hartzea aintzatestea eta sustatzea.
- Biodibertsitatearen Kontseilua sortzea gai hauek guztiak bertan eztabaidatu ahal izateko interesa duten guztien artean.

Eta zer eskaintzen du Naturkonek:

- Parte-hartzea. Natur kontserbazioari buruz hitz egiteko deitutako bileretan zein basogintzari, ehizari edo arrantzari buruzko aginduak aztertzeke mahaietan.
- Ezagutza. Ekologiari eta oro har, natur kontserbazioari buruzko ezagutza biodibertsitatearen zaintzarako edota berreskurapenerako. Aukera eman zaigunean, plan zehatzak aurkeztu izan dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta natura inguruneko zuzendaritzari.
- Lankidetzeta. Auzo-lanean ekimen asko burutu daitezkeela erakutsi dugu. Legeak eta arauak ez dira horretarako oztopo.

Hauek dira gaur hemen esateko geneuzkanak. Gipuzkoan natur talde eta talde ekologistak saretuta gaude gure ingurune naturala berreskuratzeko. Badugu ezagutza, baita eskarmentua ere. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu har gaitzala kontuak eta bete ditzala biodibertsitatearen zaintza eta berreskurapenerako dituen ardurak.



Donostian, 2022ko martxoaren 31n
Naturkon, Gipuzkoako natur talde eta talde ekologistan